



Arartekoaren 2021R-1688-20 Ebazpena, 2021eko martxoaren 24koa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari gomendatzen zaio hautaketa-prozesu bat berrikus dezala, lehiaketa-aldiko puntuazioa legez ezarritako mugetara egokitzeko.

Aurrekariak

1. Pertsona batek Arartekora jo zuen Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen (GUFÉ) 25 administrari plaza betetzeko hautaprobaren deialdiari buruzko gai batekin ados ez zegoela adierazteko. Deialdi hori 2020ko ekainaren 30eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Zehazki, prozesu horretako lehiaketa-aldian, merezimenduen atalari emandako puntuazioa izan zen auzia; izan ere, pertsona horren ustez, oinarriek aldi horri ematen zioten garrantzi erlatiboa araudiak gehieneko mugatzat ezartzen duen oposizio-aldiaren puntuazioaren % 45 baino handiagoa zen².

Arartekoa harremanetan jarri zen Bizkaiko Foru Aldundiarekin, idazki baten bidez. Idazki horretan, kexagileak hizpide darabilgun kasuan urratutzat jo zuen lege-artikulua jaso zen, eta aurreratu zen, gaiaren hasierako azterketan funtsaturik, bazirudiela kexan adierazitakoa berresten zela; beste alde batetik, administrazio horri eskatu zitzaion erakunde honi jakinaraz ziezaion esandako deialdiari esleitutako puntuazioaren konfigurazioa babes zezakeen oinarri juridikoari buruzko iritzi arrazoitua.

2. Erantzun gisa bidalitako txostenean, kexa izapidetzeko aurrekariaren berri laburra zegoen, baina gaiaren funtsari dagokionez, hurrengo paragrafoan agertzen diren argudioak baino ez zituen eman:

“Esandako horren kontra adierazi behar dugu -labur- proba psikoteknikoa nortasun-test bat dela, oinarrietan jasotako izena gorabehera, eta ez dela Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 61. artikuluan eta harekin bat datozenetan ezarritako probetako bat, ezta Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen antzeko artikuluetan ezarritako probetako bat ere ez. Tesi horren aldeko da Bilboko Administrazioarekiko Auzien 5 zenbakiko Epaitegiaren 73/2020 epaia, GUFÉk lehenago egindako antzeko deialdi baten emandakoa. Haren kopia erantsi da.”

Testu hori eta epaiaren edukia aztertu ondoren, Arartekoak beste idazki bat bidali zion Bizkaiko Foru Aldundiari; bertan, horren guztiaren gaineko iritzia

² Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 26.3. artikulua.



helarazi zion, eta administrazio horri eskatu zion txosten bat bidal dezala, puntuazio eztabaidagarria funtsatzen zuen oinarri juridikoa azaltzen zuena.

3. Bigarren erantzun-txostenean, foru-erakundeak adierazi zuen aurreko txostenean puntuazioari buruzko iritzia arrazoitua eman zuela, eta, ondoren, gure bigarren idazkiari dagokionez, honako hau adierazi zuen: *“bereziki, proba psikoteknikoaren legezotasuna eta egokitasuna zalantzan jartzea gehitu da”*, eta haren eduki osoak proba psikoteknikoen ezaugarriak eta hautaketa-prozesu batean txertatzeko aukerak jorratu zituen.

Adierazpen horiek ikusita –erakunde honek gaizki-ulertu bati baino ezin dizkio egotzi–, Arartekoak hirugarrenez eskatu zion laguntza Bizkaiko Foru Aldundiari, aplikatu beharreko araudiaren esparruan, deialdiaren lehiaketa-aldiari esleitutako puntuazioa funtsatzen zuen oinarri juridikoaren berri eman zezan.

Azken eskabide-idazkian, eskaeraren nondik norakoak argitu ziren berriro ere –eta argiro azaldu zen ez zuela zerikusirik proba psikoteknikoarekin–, eta zehaztu zen Arartekoak funtsezkotzat jotzen zuela, arestian aipaturiko legerian oinarri harturik, kasu honetan aztergai darabilgun lehiaketa-aldiaren puntuazioa bidezkoetzeko arrazoibide juridikoa zein den ezagutzea; azkenik, ohartarazi zuen, puntuazio horren funtsaren nondik norakoak aztertzeke modurik ez bazeukan, Arartekoa behartuta egongo zela ondorioak ateratzera, lehen adierazitako baldintzetan oinarrituta eta, beraz, ziurtzat joko zuela lehiaketaren alderdi honek ez zuela legez ezarritako gehieneko muga.

4. Ondoko erantzunak defendatu zuen ez zegoela inolako irregulartasunik lehiaketa-aldiko puntuazioari dagokionez, hala ebatzi baitzen lehenago aipatutako Bilboko Administrazioarekiko Auzien 5. zenbakiko Epaitegiaren 73/2020 epaian. Gainerakoan, erantzunak berriz ere deskribatu zituen proba psikoteknikoen ezaugarriak eta lehiaketan txertatzeko aukeraz jardun zuen; oposizio-aldia osatzen duten ala ez aletu zuen, eta, beraz, aldi horri dagokion puntuazioaren barruan aintzat hartu behar diren ala ez.

Gogoetak

1. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 2.1.d) artikulua dioenez, lege hori aplikagarria zaie foru- eta toki-administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko diharduten langileei.





Beste alde batetik, testu horren 25.1 eta 26.3 artikuluek honako hau ezartzen dute:

“Euskal Herri Administrazioek ageriko deialdiz eta nornahirentzako norgehiagoka, lehiaketa edo norgehiagoka-lehiaketa bidez aukeratuko dute euren langilegoa, funtzionaria zein lan-itunpekoa izan, horietan, agiritasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun-erizpideak bermatuko direla”.

“Gorago aipatutako bi sistemok aukeraketa-prozeduran hurrenez hurren gauzatzean datza norgehiagoka-lehiaketa, eta lehiaketa-aldiaren baloraketa ez da inoiz norgehiagokan lor daitekeen gehieneko puntuaketaren ehuneko berrogeita bostetik gorakoa izango”.

2. 2020ko ekainaren 30ean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen administrari-lanpostuak betetzeko hautaproben deialdiaren oinarriak, oposizio-lehiaketa bidez.

Aurreko atalean zehaztutako arauen arabera, ondorioztatu behar da hautaketa-prozesu horrek uztailaren 6ko 6/1989 Legearen xedapenak bete behar dituela.

3. Deialdiaren 3.1 eta 4.2 oinarri espezifikoek honela osatzen eta puntuatzen dituzte oposizio-aldiko ariketak:

“Oposizio-faseak lau (4) ariketa izango ditu. Lehenengo biak nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira. Hirugarrena psikoteknikoa izango da; derrigorrezkoa izango da, eta ez-baztertzaila; merezimendu gisa baloratuko da. Azkenik, laugarrena nahitaezkoa eta baztertzaila izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazetarako, eta borondatezkoa eta ez-baztertzaila, aldiz, gainerako plazetarako.

“Lehenengo eta bigarren ariketei zero (0) eta hamar (10) puntu bitarteko kalifikazioa emango zaie, eta haietariko bakoitzean bost (5) puntu lortu ez dituzten hautagaiak berez geratuko dira baztertuta.

Hirugarren ariketari zero (0) eta zortzi (8) puntu bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta ez da baztertzaila izango.

Laugarren ariketan, euskarari buruzkoan, «gai» / edo «ez gai» kalifikazioa emango zaie derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenei.

Gainerako kasuetan, honako banaketa honen arabera kalifikazioa emango da, egiaztatutako maila kontuan hartuta:

- 1. hizkuntza eskakizuna: 3,00 puntu.
- 2. hizkuntza eskakizuna: 4,50 puntu.

Bestalde, izangai batek lehiaketa-aldian lor dezakeen gehieneko puntuazioa 17,50 puntukoa da, xede horretarako argitaratu den merezimenduen baremoaren arabera.





4. Horrela, bada, oposizio-aldian, 28 puntu lor daitezke guztira, euskara jakitea alde batera utzita; lehiaketa-aldia, berriz, 17,50 puntura iristen da, eta horrek nabarmen gainditzen du uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 26.3 artikulua onargarritzat ezartzen duen gehieneko muga.
5. Bizkaiko Foru Aldundiak igorritako txostenetan, kexaren aurrekariak aipatzen diren arren, proba psikotekniko baten ezaugarriak eta erabiltzeko aukerak deskribatzen dira.

5.1. Lehenengo txostenak, lehiaketa-aldian onar daitezkeen legezko puntuazio-mugak urra daitezkeela iradokitzerakoan, proba psikoteknikoa nortasun-testa dela baino ez zuen adierazi, eta ez zuen eman Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 61. artikuluan eta horrekin bat datozenetan eta/edo Euskal Funtzio Publikoaren Legearen antzeko artikuluetan jasotako frogarik, baieztapen hori aurreko prozesu bati dagokion epai batean oinarrituta.

5.2. Beste alde batetik, bigarren txostenak azaldu zuen proba psikoteknikoa nahitaezko ariketa dela, ez baztertzailera, eta adierazi zuen haren ezaugarriak eta guztizkoarekiko garrantzi erlatibo eskasak agerian uzten dutela bigarren mailako izaera duela, ezagutza-probekin alderatuta; foru-erakundearen iritziz, kasu honetan, proba horiek lehentasunezkoak dira puntuazioagatik, baztertzailera izateagatik eta ariketa bakoitzean gutxieneko puntuazioa lortzeko betebeharragatik, gaiari buruzko jurisprudentziak eskatzen bide duen bezala.

Bizkaiko Foru Aldundiaren iritziz, proba psikotekniko hori lehiaketan baliatzeko bermea litzateke beste administrazio publiko batzuetan erabili izana eta hainbat azterlan eta iritzitan adierazitakoa izangaien gaitasunak ebaluatzeko eta deitutako plazen zereginetara, funtzioetara eta erantzukizunetara egokitzen diren ebaluatzeko horrelako proben egokitasunari buruz, betiere kontuan harturik Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak artatzen dituen pertsonen berariazko ezaugarriak, eta aintzat harturik langileek jarrerazko trebetasun egokiak izan behar dituztela, zerbitzua hartzen duen gizataldearekiko tratuan erakutsi behar den sentiberatasunarekin bat etorritik.

Hala berean, idazki horretan adierazi zen hizpide darabilgun probaren diseinu eta aplikazio zehatza ez zegoela hautaketa-organoaren ardurapean, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ardurapean baizik, nahiz eta hautaketa-epaimahaiak alde aurretik proba egiteko irizpideak ezarri behar zituen.





5.3. Hirugarren txostenak adierazi zuen ezin dela ondorioztatu merezimenduen lehiaketa-aldiari esleitutako puntuazioa oposizio-aldian lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 45eko muga urratzen duenik, eta berriro ere argudiatu zuen horretan zetzala lehen aipaturiko 73/2020 Epaiaaren edukia.

Ondoren, proba psikoteknikoaren ezaugarriak berrikusi zituen atzera, eta azaldu zuen proba oposizio-aldiaren barruan txertatu zela aukera-, ekonomia- eta eraginkortasun-arrazoiengatik, baina, egiatan, ez zela lehiaketa- edo oposizio-aldien zati, esanahi hertsian hartuta; aitzitik, probaren izaeragatik beragatik, osagarria zela, eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 61.5 artikulua eta uztailaren 6ko 25.2 eta 28 artikulua ezarritakoarekin bat zetorrela.

Izaera hori kontuan hartuta, eta foru-administrazioak adierazitakoari jarraituz, proba psikoteknikoaren puntuazioa ez litzateke kontuan hartuko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 26. artikulua ondo oinarriturako, eta, beraz, ez litzateke urratuko arestian esandako % 45eko gehieneko muga.

Era berean, deialdiaren oinarriak sindikatuekin negoziatu eta adostu zirela adierazi zuen, eta kexa honetan eztabaidagai dugun gaia baketsua izan zela.

Eta, azkenik, txostenak ziurtatu zuen proba psikoteknikoa baztertzaila ez zenez, enplegu publikoaren oinarrizko eskubideak ez zukeela kalterik hartuko; beraz, legezketasun hutseko balizko edo ustezko akatsak epearen barruan aurkaratu beharko ziratekeela; bestela, deialdiaren oinarriak irmoak izango ziren.

6. Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi du Arartekoak zalantzan jarri dituela proba psikoteknikoaren legezketasuna eta egokitasuna. Hala eta guztiz ere, lehenago aurreratu den bezala, kexa honetan Ararteko ez da desados agertu horrelako proba bat baliatzearekin, eta, beraz, erakunde honen helburua ez da izan proba hori hautaketa-prozesuaren arabera egokia den edo zein aldi zehatzetan txertatu beharko litzatekeen aztertzea, eta ez du horri buruzko galderarik egin foru-administrazio horri zuzendu dizkion ondoko eskaeretan.

Hain zuzen, espedienteari buruzko lehen informazio-eskaerak ez zuen inola ere aipatzen gai hori; bigarrenak, berriz, bai, hain zuzen ere, agerian jartzeko administrazio horrek bidalitako erantzunean ez zela jasotzen eskatutako informazioa, proba psikoteknikoei buruzko epai baten zati bat transkribatzera mugatzen baitzen, eta ezin zaio aplikatu kexan azaldutako egoerari. Azkenik,





gure hirugarren idazkiak deialdiaren lehiaketa-aldiko puntuazioari erreparatzen zion beste behin ere, bai eta aplikagarria den araudiaren barruan legez eta eraz nola txertatu zen zehaztu beharrari ere.

Kexa-espeditente honetan sortutako gaiaren xehetasunak gogoeta hauen lehenengo lau ataletan azaldutakoak dira, eta haietatik ateratzen diren ondorioak baliatuz ezin da ebatzi, erakunde honen iritziz, proba psikoteknikoaren berezitasunak kontuan hartuta.

Illo horretan, egia esatera, deialdiaren hitzez hitzeko edukia hartuz gero (hau da, proba psikoteknikoak oposizio-aldia osatzen duela ulertuta), lehiaketa-aldiko puntuazioak oposizio-aldian lor daitekeen puntuazioaren legezko % 45eko gehieneko muga gaindituko luke (17,5 puntu 28 puntutik).

Beste alde batetik, proba psikoteknikoa lehiaketa-aldiko merezimendu konputagarria dela onartuz gero, baremoan ageri diren gainerako atalekin batera, are handiagoa izango litzateke gehiegizko puntuazio hori (25,5 puntu 20 puntutik).

Azkenik, gehiegizko puntuazioa ere antzematen da proba hori bi aldeetatik kanpo utziz gero (17,5 puntu 20tik).

Beraz, ez da ulertzen Bizkaiko Foru Aldundiak gai horri buruz emandako argudioek juridikoki bidezkotu ditzaketela hautaketa-prozesuaren aldiei emandako puntuazioa, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 26.3 artikulua esparruan.

7. Bestalde, erakunde honek Bilboko Administrazioarekiko Auzien 5. zenbakiko Epaitegiaren 73/2020 epaia aztertu du. Epai hori erizain-plazen inguruko aurreko deialdi bati buruzkoa da, eta, bertan, esan daiteke administrazioarekiko auzibidean errekurtsoa jarri zuten pertsonak, besteak beste, epaimahaiak uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 26.3 artikulua urratu zela deklaratzeari nahi izan zutelari.

Orduan formulatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren berezitasunak ezagutzen ez ditugun arren, epaiaren aurrekarietatik ondoriozta daiteke demandaren oinarriak bat datozela funtsean kexa-idazkian agertutakoekin; izan ere, arau horrek eragotzi egiten du lehiaketa-aldiaren balorazioa oposizio-aldiaren puntuazioaren % 45 baino handiagoa izatea, oposizio-lehiaketaren sistema erabiltzen denean.





Esandakoa alde batera utzita, eta ondoriozta daitekeenaren arabera, orduko errekurtsogileek ere proba psikoteknikoarekin ados ez zeudela adierazi zuten errekurtsuan, benetan, nortasun-testa zela interpretatu baitzuten; beraz, haien aburuz, ez zen Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak xedatutakoarekin bat datorren froga, eta, gainera, oinarrizko eskubideak urratzen zituen, nortasunaren ezaugarrietan funtsatzen zelako, ez merezimendu- eta gaitasun-osagaietan.

Epaiak bi alderdiak atal berean jorratzen dituen arren, ez ditu elkarrekin lotzen, uztartutako gaiak balira bezala, gure eskaerei erantzuteko txostenetatik ondorioztatzen denez.

Eta edukiari dagokionez, esan dezagun ez duela bietako baten funtsa ere aztertzen, ebatzi baita errekurtsua ez dela deialdiaren oinarrien aurka jarri, garapen-egintzetako baten aurka baizik, eta, beraz, oinarri horiek irmoak dira eta, hortaz, ezin errekurrituzkoak.

Honela dio (azpimarra gurea da):

“Respecto de estas dos cuestiones, lo que se recurren en realidad son las bases de la convocatoria, pues en ellas es donde se relata el contenido de la prueba psicotécnica y la valoración de la puntuación final por cada fase.

Respecto de la primera, la Base específica tercera para acceso al cuerpo de enfermería señala: (...)

En cuanto a la valoración de la fase de concurso, la base general décima establece: (...)

Por lo tanto, ambos extremos eran conocidos por los aspirantes desde el momento en que se publicó la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia el 20 de abril de 2018, sin que se interpusiera recurso alguno. Según señala la sentencia de la Sala de lo Contencioso Administrativo (sección 2ª) del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco de 26 de noviembre de 2019:

Es conocida la posición jurisprudencial en relación con la posibilidad de impugnar las bases de la convocatoria a través de los actos que la aplican "cuando ellas mismas comportan la vulneración de un derecho fundamental", como se sostiene en la STS 10.7.2019 (rec. 5010/17), y las que en ella se citan. Y la STS de 7 de junio de 2019 (rec.6588/2017), que en relación con la STC 107/2003, admite, como excepción a la necesidad de impugnación de las Bases en el momento y plazo oportunos, la impugnación indirecta de aquellas "cuando a través de un acto de aplicación de las mismas se produce una vulneración de un derecho fundamental recogido en la Constitución, dando como resultado un vicio de nulidad radical y absoluta del artículo que lesiona derechos susceptibles de amparo constitucional como son el art. 14 y el artículo 23.2 de nuestra Carta Magna, que proclaman el principio de igualdad, mérito y





capacidad en el acceso a la función pública". En el mismo sentido STS de 31 de marzo de 2016 (rec. 994/2015).

En el presente caso, ni la prueba psicotécnica ni la fase de concurso tienen carácter eliminatorio, por lo que no cabe hablar de afectación al derecho fundamental al acceso de la función pública, razón por lo que los vicios de mera legalidad debieron ser impugnados en su momento, atacando directamente las bases del proceso selectivo, y no con ocasión de la aplicación concreta de las bases de la convocatoria, por lo que no cabe entrar al fondo de la cuestión planteada."

Epaian deskribatutako egitateen aurka, espediente hau sorrarazi duen kasuan, deialdiaren oinarriekin bat ez etortzea mahairatu da; izan ere, goian adierazi den bezala, deialdi hori 2020ko ekainaren 30ean argitaratu zen, eta haren testuak berak aurreikusi zuen interesdunek errekurtsio administratibo edo judicial egokiak jartzeko aukera.

Deialdiaren oinarrien aurka administrazio-bidean aurkeztu ziren errekurtsioak alde batera utzita, egia esanda, Arartekoaren aurrean ere aurkeztu eta izapidetu zen kexa, ordenamendu juridikoak horretarako ezartzen duen bideari jarraituz eta erakunde honek euskal administrazio publikoen jarduerak aztertze eta herritarrak aginte- eta botere-abusuen eta administrazio horien zabarkerien aurrean babesteko dituen ahalmenak baliatuz.

Ondorioz, kasu honetan ezin da epaian erabilitako ondorio bera aurkaratu; aitzitik, gaiaren muinari heldu behar zaio, ebazpen honen aurreko zenbakietan zehazten den moduan.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakunde (GUF) 25 administrari-lanpostu betetzeko hautaketa-prozesua berrikustea (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2020ko ekainaren 30ean), lehiaketa-aldiko puntuazioa legez ezarritako mugetara egokitzeko.

